

# 1. FISIOTERAPEUTAK

## NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Zerbitzu profesional hau min fisikoak, ezintasunak, giharretako eta giltzaduretako kalteak eta estresa dutenentzako da.

Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) arabera, “Fisioterapia tratamenduaren antzea eta jakintza —arte eta zientzia— da, horretarako ariketa terapeutikoa, beroa, hotza, argia, ura, masajea eta elektrizitatea erabiliz”.

## MERKATU-DATUAK

### □ *Eskaintzaren azterketa*

Fisioterapeuten jakintzaz baliatzen dira pediatrian, kirol-tratamenduan, traumatologian eta traumatologia-ostean (zirkulazioko eta laneko istripuak), erreumatologian, geriatrian edo neurologian.

Lanbide berri samarra izanik, lan-aukera onak eskaintzen ditu. Fisioterapia goraka doan lanbidea da Europako Batasunean, non oso etorkizun oneko lanbidea baita, faktore garrantzitsua, Espainiak Europako fisioterapeuta-tasarik txikiena baitu: 13 diplomadun 100.000 biztanleko.

Irteera profesional ohikoena Fisioterapiako diplomadunentzat ospitale, klinika, kirol-elkarte, errehabilitazio-zentro eta anbulatorioetan —pribatu nahiz Gizarte Segurantzaren menpekoetan— lan egitea da. Bestalde, profesional askok enpresetako osasun-zerbitzuetan lan egitera jotzen du. Lanbide hau norberak bere kontura ere egin dezake, etxez etxeko laguntza emanez normalean. Arazo nagusia Lanbide Heziketako titulu baten (errehabilitazioko teknikariaren) lehia da: Beste arazo bat bigarren eta hirugarren ziklorik ez egotea da, ondorioz atzerrira (Britainia Handira, AEBra...) joan behar dutelarik prestakuntza osatzera.

### □ *Eskariaren azterketa*

Etorkizuna autoenpleguan dago. Fisioterapeuten langabezia txiki samarra da beste lanbide batzuen aldean, eta lan-itxaropena ona da lanbide honetan.

Espainia bezalako herrialde batean, industrializatua, errenta *per capita* on samarrarekin, fisioterapeuten jarduera-eremua oso zabala da. Osasun-profesionalak dira, adin guztiak har ditzakete eta ia patologia guztietan. Patologia gutxi dago fisioterapiaren ikuspegia ez duenik. Adibide gisa, fisioterapeutak neonatologiako unitatean lan egin dezake, inkubagailuan esku sartuz, edo bihotz-hodietako Arreta Intentsiboko Unitatean bihotz irekiko ebakuntza izan duen gaixoa tratatzen, edo bularreko minbizia sendatzeko ebakuntza egin diotenari masektomia tratatzeko. Kirol-arloan ere etorkizun ona dago, bai ikuspegi profesionaletik eta bai jarduera sozial gisa.

Fisioterapia goranzko joeran dago. Tradizionalki kirol-arlora (batez ere, profesional edo paraprofesionalera) eta arlo medikora (errehabilitazio-tratamenduen barruan) mugatua egon da funtsean.

Eta egoera hori honako faktore hauek eragin dute:

- Osasunaren eta gorputzaren kultura areagotzea, horrek instalazio publiko eta pribatuetan gorputz-ariketaren ohiko praktika dezente gehitzea ekarri du, eta horretan osagarria da fisioterapia-zerbitzua.
- Kirola profesionalizatu izana eta hori masa-ikuskizun bihurtu izana; horrek ere kirol-medikuntza eta fisioterapia gehitzea ekarri du.
- Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua areagotu izana, osasun-zerbitzu publiko eta pribatuak gehiago eta hobeak direlarik guztiontzat, eta fisioterapia da onura izan duen arloetako bat, minak, gaixotasunak, istripuak eta abar sendatzeko.

## **ENPRESA-PLANA**

### **Marketin-plana**

#### □ *Produktuak/Zerbitzuak*

Fisioterapeutak bezeroaren bizi-kalitatea hobetu nahi du, baita era guztietako minak saihestu eta gizarteratzea eta lan-munduratzeari erraztea ere, besteak beste. Fisioterapeutak arta ditzakeen patologiaak era askotakoak dira, baita erabil ditzakeen teknikak ere.

Eskain dezakeena:

- Ezgaituentzako tratamenduak.
- Asaldu neurologikoak dituztenentzako tratamenduak.
- Lesionatuentzako tratamenduak.

Fisioterapeutak erabil ditzakeen teknikak:

- Zinesiterapia (gorputzaren mugimendu bidezko terapia)
- Giltzaduretako manipulazioak (osteopatia, kiropaxia)
- Masoterapia (masaje bidezko tratamendua)
- Elektroterapia (elektrizitatearen eraginean oinarritutako tratamendua).
- Ultrasonoterapia (ultrasoinuen bidezko tratamendua).
- Argi-irradak (infragorriak, ultramoreak eta laserra)
- Termoak eta krioterapia (hotz eta beroaren erabilera), hidroterapia (bainuak, zurrustak, igerilekuak, bainuetxeak), etab.

Fisioterapeutak ondorengo negozio-eredu hauetakoren bat edo hauen konbinazioren bat aukera dezake:

- Profesional gisa bere zerbitzuak enpresa hauetakoren batean ematea:
  - Hezkuntza Bereziko eta Integrazioko Ikastetxeetan
  - Gimnasio, kirol-elkarte eta zentroetan
  - Osasun-etxe, Ospitale eta Anbulatorioetan
  - Hirugarren Adinekoen egoitza eta eguneko zentroetan
- Fisioterapiako Kabineteren batean zerbitzuak ematea, horretarako instalazio egokiek: itzaroteko gela, kontsulta eta errehabilitazio-gela.
- Zerbitzua etxez etxe ematea, nahiz eta kasu honetan zerbitzu-mota asko mugatu.
- Klinika batean zerbitzu integrala ematea beste profesional batzuekin: sendagile, ortopeda, logopeda, podologo eta abarrekin.

□ *Sustapena*

Sustapena bide hauetakoren bat erabiliz egin daiteke:

- Bezero-gaixoen profilaren arabera, honelako sendabideak agintzen dituztenen bidez: sendagileak, gimnasio edo kirol-instalazioetako langileak, klinika pribatuak...
- Orrialde Horiak.
- Publizitatea tokian tokiko komunikabide espezializatuetan.
- Lehenengo bezeroak geureganatu ondoren, batak besteari egindako publizitateak ondo funtzionatzen du jarduera honetan.

### **Plan Operatiboa**

□ *Lokala eta Kokapena*

Lokala eta kokapena aukeratutako negozio-ereduaren arabera izango da. Errehabilitazio eta fisioterapia-zentroa irekiz gero, lokala bulego-erakinetan, partikularren lokal edo eraikinetan jartzea gomendatzen da (betiere Auzo Elkartearen estatutuetan baimenduta baldin badago eraikin horretan lanbide-jarduera bat egitea).

Kontsultan honako hauek jartzea komeni da: harrera- eta itzaroteko gela, kontsulta eta errehabilitazio-gela. 75-100 m<sup>2</sup> behar dira, gutxienez.

□ *Ekipamendua*

Gutxieneko tresneria eskainitako zerbitzuen araberakoa izango da. Dena den, ohe txikia behar da, trakzio-tresna bertikalak, ultrasoinua, uhin laburra, elektroestimulagailua eta balio erantsi handiko beste batzuk, baina inbertsio esanguratsuak eskatzen dituztenak, laser izpidun makinak kasuan, adibidez.

### **Giza baliabideen plana**

Fisioterapeuta baten kontsultan fisioterapeuta bera bakarrik egon daiteke, dakiena egiaztatzen duen titulu ofizialarekin eta Elkargoan kolegiatuta. Gainera, beste langile bat izan dezake bezeroen harrera eta atentziorako, eta laguntzaile bat.

### **Inbertsio-plana**

Hasierako inbertsioa 11.000 eta 47.000 euro artekoa izan daiteke, kontsulta edo errehabilitazio-zentroaren tamainaren arabera, gutxi gorabehera honela bana daitekeelarik kontu-sailen arabera: lokalaren erreforma eta altzariak (3.000-12.000 euro), tresneria (3.000-24.000 euro), lehenengo hilabeteetako alokairua (2.000 euro), eraketa-gastuak eta gastu arruntetarako maniobra-funtsa (3.000-9.000 euro).

Dena den, negozioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

### **Administrazio-izapideak**

**EAE:** Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>  
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

### **Enpresa bat sortzeko informazio osoa**

<http://www.creaciondempresas.com/>

### **Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak**

Espania. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

### **Izapide bereziak**

Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kide egitea.

### **IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK**

10. Kontsultara joatea agintzen dutenak ongi kudeatzea pizgarrien eta leialtasuna lortzeko planen bidez.
11. Bezeroarentzako arreta pertsonalizatua, eta begirunea eta berarekiko lotura afektiboa ezartzea (kontuan izanda tratamendu-saioak ez direla laburrak izaten) dira bezeroak gurekin jarraitzeko eta aldi berean hauek beste batzuei gomendatzeko oinarriak.
12. Tratamendu aurreratuak eskaintzea: magnoterapia, laser izpiekiko tratamenduak, elektroterapia, erreflexoterapia...
13. Zerbitzuak ethez etxe ematea, kontsultakoarekin batera.
14. Internet zerbitzuak garatzea bezeroentzat, horien bidez kontsulta zehatzak egin ahal izateko, eta horien bidez guk beraien tratamenduaren jarraipena egin ahal izateko; tresna erabilgarria izan daiteke etorkizunean.

### **HELBIDE INTERESGARRIAK**

*Colegio profesional de Fisioterapeutas de Madrid — Madrilgo Fisioterapeuten Elkargo profesionala (beste Elkargo batzuek ere badute beren web gunea)*  
<http://www.afisiomad.org>

*Asociación Española de Fisioterapeutas — Fisioterapeuten Espainiako Elkarte*  
<http://www.aefi.net>

### ***Prestakuntza***

<http://www.cursossanitas.org>

<http://www.emagister.com>